


PARAISO ANTZERKIA

HAUR ETA GAZTEENTZAKO ANTZERKIGINTZA ZENTROA


Abetxuko Pueblo 8-B / 01013 Vitoria-Gasteiz
Tfn: 945-289323 - Móvil 909-477403 - Fax: 945-269184
E-mail: teatro.paraiso@clientes.euskaltel.es

Laguntza berezia:



Izarak

Roberto Frabetti-rena



PARAISO ANTZERKIA

HAUR ETA GAZTEENTZAKO ANTZERKIGINTZA ZENTROA

Dirulaguntza ematen dute:



MINISTERIO DE EDUCACIÓN Y CULTURA
Instituto Nacional de las Artes Escénicas y de la Música




GOBIERNO NAVARRA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

Laguntzen dute:



Honako hauekin elkartutako
kompania da:




PARAISO ANTZERKIA

Konpainia honek azken urteetan landu dituen ikuskizunak publiko guztietarako egin izan dira eta ikuslerik gazteenak antzerkiarekin harremana izateko asmoz.

Orain dela ia bi hamarkadetatik Paraiso Antzerkiak antzerki lan asko egin du (3.000 emanaldi inguru, 19 ikuskizun, 600.000 ikusle baino gehiago, jaialdi askotan izan gara eta baita foro nazional eta nazioartekoetan ere, hitzaldiak, ikastaroak, erakusketak, argitalpenak...).

Aldi berean, Paraiso Antzerkiak Haur eta Gazteentzako Beñat-Etxepare Antzokien (Gasteiz) egitaraua zuzentzen du eta baita Mitsu-ko egitaraua ere (Bilbon).

Bere proiektu artistikoan etengabeko apustua egin da ikusle gazteei zuzendutako antzerkia dignifikatu eta proiektatzeko. Beren sorkuntzetan planteamendu irekiak, sustatzeileak eta konprometituak erabiltzen dituzte.



Izarak

Roberto Frabetti-ren testua, Paraiso Antzerkiak produzitutakoa, honako hauekin lankidetzan: La Baracca, Haurtzaro eta Gazteriarako Antzerki eta Arte Zentro Italiarra.

ANTZEZLEA.....REYES MOLERES edo ROSA A. GARCIA
ARGI ETA SOINU TEKNIKARIA.....TXEMA DIEZ
REGIDOREA.....GRACIA MARIA LOPEZ
ESZENA ESPAZIOA.....CARLOS HERANS ETA CARLOS P. DONADO
JANTZIAK.....PILAR LOPEZ
OBJEKTUAK.....PARAISO ANTZERKIA
ARGIZTAPENA.....CARLOS HERANS ETA TOMAS FDEZ. ALONSO
ARGAZKIAK.....PATXI SANCHEZ DEHESA
PRODUKZIOAREN KUDEAKETA.....ELENA RUIZ
PRODUKZIOA ETA BANAKETA.....PILAR LOPEZ
ZUZENDARITZA LAGUNTZAILEA.....TOMAS FDEZ. ALONSO
ZUZENDARITZA.....CARLOS HERANS
EGILEA.....ROBERTO FRABETTI



TOPAKETA ANTZERKIAREKIN

Garzteentzako espektakulua egitea beti da zaila. Adin horietako umeekin lan egiteko garbi eduki behar da haurrek antzerkiarekin duten lehen kontaktua izango dela, bai komunikazio pertsonen artean zuzenean gertatzen delako eta baita antzertokiaren espazio fisikoagatik ere. Eta beste ezer baino lehen premisarik garrantzitsuena agian honako hau da: zertarako eta zergatik egin nahi da propio gaztetxoei zuzendutako espektakulua? Nire ustez arrazoi nagusia hauxe da: antzerkiak aukera emango die la haurrei bizi esperientzia berezia izateko, masa komunikabideek ez bezala. Izan ere, komunikabide horiek bonbardaketa eragiten dute, beren programa, publizitate mezu, irudi, eta abarrek, eta horiek guztiak errealitatearen ikuspegi birtual hutsa eskaintzen dute, elkarrekintza zuzenerako aukerarik eman gabe, jasotako mezua afektiboki, emozionalki eta gogoeta bidez lantzeko aukerarik eman gabe. Antzerkiaren bizipenek, ordea, antzezle, objektuekin topaketa "erreal" ahalbidetzen du, eta horiek estimulu sentsozial, emozionalak eskaintzen dituzte baita haurraren garapenerako hazkunde pertsonaleko elementuak ere. Hipotesi horien IZARRAK planteatzen da. Horretarako komunikatzailearen (antzezlea) lana ez da bakarrik pertsonaia jakin bat lantzea; gehienbat atmosfera komunikatiboa sortzeko ahalmena landuko du eta istorioaren halo poetikoarekin batera, ikusle txikiak liluratzea lortu nahi da.

Carlos Herans.

Izarrek

"Izarrek gauetz irteten dira, haurrak lotan daudenean. Zeruan geidi-geidirik daude eta haurrei begiratzen diete lotan dauden bitartean.

Ume bakoitzak bere izarra du... Arreta jartzen baduzu, begiak itxi eta esku bat irekitzen baduzu, eskutik nola pasatzen den antzemango duzu... lantandu eta opari bat uzten dizula sentituko duzu".

Ipuina hitz gutxi erabiliz garatzen da, kariloi musika suabeaz, argi planetario txikiak eta lau sehaskaz osaturiko giro eszenografikoan; sehaska horietan lau jaito berri lotan daude.

Antzezleak lau izarrek utzitako dohainak lotan dauden haurrei eta ikusleei erakusten dizkie. Izar horiek ibailetako ura, lakuetakoa, edatekoa ekartzen dituzte; argia eman eta berotzen duen sua; lurra bere kolore eta pisuekin, eta airea bere arintasun eta bizkortasunaz.

Ura, sua, lurra eta airea bizi elementuak dira, eta izarrek mundu txikia oparitzen digute.

